

ARGI BATEN BILLA.

Mundu ontako usteltasuna,
 Gaiztakeriya begiraturik,
 Neukan batean nere biyotza
 Miñaren miñez estandaturik,
 Argi bat billa nairik nebillen,
 Bañan argirik ez arkiturik,
 Izekiz¹ otoitz egiten asi
 Nitzan, Jaunari gurteskatirik,²
 Biralitzeko argi pozti bat
 Egon ez nedin beti mindurik.

Au esatean: nere gañean
 Soñu bat entzun nuen gozoa,
 Loreetatikan goratutzen dan
 Likurta³ baño gozoagoa;
 Chori polliten baso-tarteko
 Kantua baño eztiyagoa;
 Sartaizearen⁴ arratsaldeko
 Surmurra baño bigunagoa;
 Arkaitz-arteko iturriyaren
 Pill-pilla baño poztiyagoa.

Miretsiturik eta zurturik,
 Begira nuen nere gañera,
 Eta ikusirik aingeru eder bat
 Nola zetorren egaan lurrera;
 Zentzusteturik, erori nitzan
 Kopetarekin lurra jotzera,
 Baña aditzean aingeruari:
 «¡Jaiki, gizona! atoz onera,»
 Jaike nitzan, ta jaso nituen
 Begi tristeak Zeru urdiñera.

Eta aingeruak, zabaldirikan
 Bere egal eder zillarrestuak,
 Lurrindurikan⁵ bere asnasaz
 Geuden lekuen ingurukuak,
 Gozo esan ziran: «Argi Bat, pozbat
 Billa nai dezu baña munduak
 Ez dauka argirik, ez ere pozik,
 Baizikan neke naigabetsuak;
 Zuk nai dituzun poza t'argiya
 Bakar-bakarrik dauzka Zeruak.»

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) Con fervor.—(2) Suplicando.—(3) Aroma.—(4) Céfiro.—(5) Perfumado.